

NAFARROAKO BAINU-EREMU NATURALAK

Urederra ibaia Artabian (Allin)





Mota: Ibaia | Kokapena: Allin

Ibai igerilekua urmael bat da, eta presa txiki batek sortu du. Haren ura Urbasa-Andia parke naturaleko mendigune karstikotik dator, Urederraren iturburutik eta “Ega eta Urederra ibaiak” Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE-ES 2200024) ibai korridoretik, eskuineko ertzean. Bainu-eremu berean zubi erromaniko bat dago, eta bertatik amurrainak ikusi ohi dira; zalantzarik gabe, bertako uren kalitate onaren adierazle da hori.

Ekipamendua: Lorategiz hornitutako eremua. Baditu mahaiak, dutxa, itzalguneak, kioskoa, paperontziak eta ibilgailuen aparkalekua. Udan, sarbidea ordainpekoa da, instalazioak mantentzen laguntzeko.

Sarbidea: Lizarratik 9,5 kilometrora, NA-718 errepideari jarraituz, ezkerrean desbideratze bat dago, Artabiaraino doana. Putzua zubi erromanikoaren ondoan dago, plazatik 100 metro pasatxora.



[Erreserbak](#)

[Nola iritsi](#)